



2.9 KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua arrakastatsua izateko, ezinbestekoa da kostuen egitura argi izatea. Horretarako, beharrezkoa da gastu nagusiak identifikatzea eta ondo antolatzea. Kostuak bi atal finkoeran antolatuko ditugu kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

Kostu finkoak gure jarduerak garatzeko ezinbestekoak dira eta denboran zehar egonkor mantentzen dira. Gure kostu finkoak ondorengoak dira.

Baserriaren alokairua edo erabilera, hau kostu beharrezkoa da; izan ere, umeak hor egingo dute lo eta hor egingo dituzte ekintzak. Hau gure udalekuak kokatuko diren lurren eta instalazioen erabilera edo alokairuaren gastuak estimatzen dugu 2.000€koak izango direla gutxi gora behera.

Beste kostu finko bat langileen soldatak izango dira, hauek beharrezkoak dira udalekuak aurrera ateratzeko eta hauetan monitoreak, zuzendarien eta bestelako langileen soldatak sartzen dira pentsatzen dugu hauetan hasieran 8.000€ gastatuko ditugula.

Hurrengo kostu finkoa segurtasun eta aseguruarenak dira, umeak seguru mantentzea beharrezko ikusten dugu eta orduan kostu hau beharrezkoa da. Hau da, ume guztien aseguruak bermatzea udalekuaren erantzukizuna da. kalkulatu dugu gastu hau 1.500€ inguruan ibiliko dela.

Gure udalekuetan promozioa eta marketina egongo denez hau beste gastu finko bat izango da. Web orria, publizitatea, sare-sozialak eta beste sustapen jarduera batzuk gure kostuen barru sartuko dira estimatzen dugu 1.000€ koa izango dela.

Kostu aldakorrak parte-hartzaile kopuruaren arabera eta jardueren arabera aldatzen dira. Gure kasuan ondorengo hauek izango dira.

Janariaren gastuak kostu aldakorra izango da; izan ere, parte-hartzaile kopuruaren arabera aldatu egiten da. Umeentzako dieta orekatu bat mantentzea beharrezkoa ikusten dugunez janariaren kostua beharrezkoa izango da.



Material didktikoa eta asialdikoak beste kostu bat izango da parte-hartzaileen arabera aldatzen dena. Hauen barruan tailerrak, jokoak eta beste jarduera batzuk egiteko behar diren materialak sartu ditugu.

Jarduera espezifikoak ere, kontsumitzaile kopuruaren arabera aldatzen den kostu bat da. Hemen baserriko lanarekin eta naturarekin lotuta dauden jarduerak sartu ditugu, hau da, landatzeko aziak etab.

Garraioaren kostua ume kopuruaren arabera aldatzen den gastu bat da. Hemen jarduerak egiteko autobusa eta erabili behar dugun garraio sartu dugu.

Azkenik, ur, argi eta energia gastuak erabileraren arabera aldatzen direnez beste kostu aldakor bat da. Hemen Instalazioen eguneroko erabilerarako beharrezko baliabideen kostuak sartu ditugu.